

AOB

[ZURE BILA IBILI ZEN KALEZ KALE]

Zure bila ibili zen kalez kale
zutaz galdetu zuen barretan
itxoin ere egin zizun zenbait puntutan
zure bila aldendu zen.

Zurekin nahi omen zuen hitz egin.
Esan zidanez, zurekin nahi omen zuen hitz egin.
Zurekin nahi omen zuen hitz egin,
aurrez aurre, zurekin.
Esan zidanez, zurekin nahi omen zuen hitz egin.

Mintzatzen zelarik, orduak aipatzen zituen,
uste nuen esaten zuen.
Itxoiten zuelarik nabari zuen ere
maitasun hitza itxoiten zegoela.

Zuretzat omen zekarren
mandatu bat hitzez ematekoa,
begiz,
ezpainez,
aurrez aurre emateko mandatu bat,
aurrez aurre
hitzez,
ezpainez,
begiz;
ezpainez
zuri emateko, aurrez aurre.

Bainan zu ez zinan agertu,
ez zinan agertu,
ez zinan agertu,
eta zure bila aldendu zen
jende artez jende arte.
Mintzatzen zelarik.....
Zurekin nahi omen zuen hitz egin.